

GOGOETARI LEIHO

Txillardegiren alde, baina alferrik

BIKAINA, OREKATUA, zentzuzkoa eta ederki idatzia iruditu zitzaidan Andolin Eguzkitza adiskidearen artikulua ('Txillardegiren alde', EGUNKARIA, 992 / 1 / 23), eta zinez poztu ninduen horretan ere erizkidetasun osoa izateak, dakusadanez, Jazinto F. Setien bera ere horrekin bat etorritz.

Eguzkitzak bere artikuluan Jose Luisen merezimenduak egokiro zerendatu ditu, eta logika onaz, euskararen eta euskal literaturaren alde hainbeste egin duen pertsona. Aita Barandiaran-en heriotzeak Euskaltzaindian hutsik utzirik gipuzkoar aukia betetzeko proposatzen du.

Beldur naiz, ordea, hau ere ez ote den aldez aurretik iragarritako heriotze baten kronika gisako zerbait. Derradan garbi: apostu egingo nuke oraingoan ere Txillardegi ez dutela euskaltzain hautatuko, oker egotea biziki gustatuko litzaidakeen arren.

Ez da inorentzat sekretua, edo garai hauean ez luke izan behar behintzat, erakunde eta akademia guztietan kandidatu zientzi merezimendu objektiboez landa, bestelako zirkunstantziak ere balioetsi ohi direla. Hori dela eta, gurean ere maiz estimatuagoak izaten dira gorabehera pertsonal horiek, adiskidetasun-etsaiagoak, ezinikusi eta kidetasun politikoak gainerako balioak baino. Eta sekretuak inori inoiz esaten ez zaizkion gauzak barrik, lagun guztiei ixilka eta banan banan kontatzen omen zaizkien izkirimiri zapo-etsuak izaten direlako, jakin ba dakigu, Euskaltzaindiari inoiz holako 'baldintzak ezkutuak' idatziz ere proposatu izan dituela norbaitek. 'euskaltzain ereduak bete beharreko merezimenduen dekalogo' hura, zorionez gaitzetsia izan arren.

Baina eskribuzkoak bazterturik ere, baldintza horiek bizi-bizirik diraute oraino batzuren gogo-bihotzetan, Alphonse Daudet-en irakurleek gogoan duketen bezala, hark 'Lettres de mon moulin' idazlanean mandoaren ostiko sonatuaz hain garbiri adierazi zuen 'Épiscopat ecclésiastique' delakoa definioz irauingezina baita, nafarrek, erdaraz eta era trauksilagoaz, 'odio de cura, hasta la sepultura' zehazki esan ohi duten bezala, Euskaltzaindiaren azken bilerako txostena lekuko (1992 / 1 / 31).

Jose Luisek, egia da, gaur egun Euskaltzaindian dauden askok baino merezi-



mendu handiagoak dituzke gure Hizkuntzaren Akademiaren ohore osoaz esertzeko, eta haren idazlanak beragatik garbi mintzo dira. Bestalde, eta inolako zalantzarik gabe, Gabriel Arestirekin batera, Txillardegi izan da, bere lan eta prosarekin, euskara baturean moldatzaile eta bultzatzaile erabakiorrena. Doktorea eta unibertsitateko irakaslea dugu, eta beti ere, praktika pertsonalaz, gure hizkuntzaren defendatzaile suharra. Baina, hala eta guztiz ere, bere politikazko pentsakeragatik, gauzak garbi eta beldurrik gabe esateko duen ohiura antza madarikatuagatik, ez dute euskaltzain aukeratu.

Txillardegik euskaltzain izateko lehenengo

aldiz proposatu zutenean, izan zuen barantzainaren txakurraren egiten saiatu zenik, eta hiru aldiz botu gehienak berak izan arren, haien artean Mitxelenarena. —eta Koldok berak halaxe aitortu zidalako dakit hori— bestea bereaz irten zen, donostiara, azken orduko joku zikinaz nazkaturik, erretiratu zelako.

Halere, txikitandik entzun dugunetik, eskerrona elizgizonen birtute maiteenetakoa denez gero, gerta daiteke, ordea, zergatik ez, hari esker lekua hartu zuenak, orain faborea bihurtu nahi izatea. Edonola ere, batzuk, orduan egin zioten laidoa eta burla gaiztoa jasan ondoren, Txillardegik alde egitean izan

omen zuen «humore txarreko portaera zaka-rragatik», botua berriz ere ukatu zioten Gipuzkoan Mitxelenaren hutsunea gertatu zenean.

Baina lasai egon daiteke Txillardegi. Ez dakit nik, gaurko egoera honetan, zein puntutara den ohoragarri euskaltzain hautaturik gertatzea. Dirudienetik, Euskaltzaindaren prezioa ixiltasuna, mantsokeria, monekotasuna eta goikoek egindako azpikerien onarpen apala baldin bada, horri arrazoiak garestiegi deritzoke Larramendiren kastako euskaldunak, hots, «ez gaude uzkia inori garbitzen ohiuak» hura estimatuago duenak.

Pentsatzen dut, gisa bereko arrazoiengatik ez zirela inoiz euskaltzain oso izatera heldu J. Mirande eta G. Aresti idazleak ere, Sartre ere Frantziakora heldu ez zen bezalaxe. Beren garaian horiek gaitzetsi eta aukeratu nahi izan ez zituzten Akademiaren lotsarako, noski, haiek geroago krokodilo-negarrez laudatu arren.

Hala ere, bai bataren eta bai bestearen idazlanak gaurko unibertsitarien doktorego-gai bilakatu dira. Beste batzuk ordea, euskaltzaintza osoa gora behera, agian ez dute maila bereko interesik sekula sortaraziko. Historiaren jukua, azken buruan, berantiar bada ere, zehatza izaten baita bere idortasunean.

Ba dakit, hipokriten kasta ere kontaezina baita, batzu espantarritu egingen direla Euskaltzaindiako bame zikinak honela argitaratzeagatik. Nik ordea, ez dakusat zergatik ondasan publikotik dirua jasotzen duen erakunde gertakariak, estalki edo sekretupeko moztorepean ezkatu behar diren. Espainiako Akademiaren bame-istiluak eta gorabeherak, hauteskunde garaioak batik bat, erdal prentsak ongi haztetzatzen ditu, eta inor ez da horregatik eskandalizatzen. Ba da garaia, kritika arloan, ilunkeria eta salbuespenismoa gal eta normaltzen has gaitetzen gero.

Gauza bat baitzen faxismo garaiko Euskaltzaindi errumes hura, bere ahulezian guztiok nola edo hala beti ere babestekoa, eta beste bat, zeharo ezberdina, oraingoa, zerga-emaile guztion poltsikotik lasai bizi dena. Eta ordaindu 'behar duenak, gutxienez ordainduari, demokrazian behintzat, kontuak eskatzeko eskubidea dauka, eta pentsatzen duena garbiri adieraztekoa ere bai; eran-zunkizun guztiekin, noski.

XABIER KINTANA

ORAIN DELA HEMERETZI URTE

Jon Enbeita: «Kantari gisa saiatu arren nik ez dut inoiz bertsolaritza utziko»

Jon Enbeitaren izena letra handitan irakur zitekeen orain dela 19 urteko 'Zeruko Argia' aldizkarian, eta artikulua ilustratzen, berriz, Jon Enbeita gitarra batekin erakusten duen argazkia ageri zen, hemen aldamean duzun berbera.

Izan ere, ez da ahaztu behar gaur egun Araba-Bizkaiko bertsolarien artean txapeliduna den Jon Enbeita, bertsolari baino gehiago kantari gisa ezagutzen zela euskal kulturaren munduan. Hala ere, Jon Enbeitak garbi utzi zien 'Zeruko Argia-koei' bertsolaritzari ez ziola uko egiten,

ezta hurrik eman ere: «Zergatik utzi zenuen bertsolaritza?», galdetu zion kazetariak kantariari, eta honek ez zuen zalantzarako tartetik utzi bere erantzunean: «Nor esan du utzi dudantik? Lehengoan ere Bilboko 'Gacetan' ala 'Correon' ez dakit, ex-versolari edo holako zerbait jartzen zuan. Ez dut inoiz bertsolaritza uztera noanik esan. Holakorik ez neuskio nere buruari barkatuko. Lehen adina gaur ere banazela ueste dut. Bururaino sartuta daukat bere sustraia eta 'neu' naizen artean nigan izango da».

Kepa Enbeitaren iloba, Balendin Enbeitaren seme, Moises eta Abel Enbeitaren anaia, Jon ez zegoen, ez, bertsolaritza alde batera uztekoan. Orixe Bertso Saria irabazi zuen 1977an, eta harrez gero Bizkaiko eta Euskal Herri osoko bertsolaririk estimatuenetako bat bihurtu da.

Kantatzen urte t'ardi inguru zerraman ordurako Jon Enbeitak. 1971ko uda aldean izan zuen, beraz, bere estreinaldia kantari gisa. 'Zeruko Argia-ko' elkarrizketan 'erdi-profesional' izateko asmoa erakusten du, eta kantariak dirua irabazi



Jon Enbeita, gitarrarekin 1973an eta Orixe Bertso Sariaren irabazle 1977an.

beharra duela aipatzen du, zalantzarik gabe: «Abeslaria abestira dedikatzea nahi badugu eta egunero gehia-

go esijitzen badiogu, pagatu ere lan egin behar deusagu. Ez dira ilargitiki bizi».